Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko ekainaren 29a, astelehena — 120 — Lunes, a 29 de junio de 2026

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

257/2026 Foru Agindua, ekainaren 17koa, otsailaren 17ko 86/2023 Foru Aginduaren bidez onetsitako 620 ereduaren aurkezpenaren zenbait alderdi aldatzen dituena.

Otsailaren 17ko 86/2023 Foru Aginduaren bidez, garraiobide erabiliak eskualdatzeagatik ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga autolikidatzeko erabili beharreko 620 eredua onetsi zen, eta hura nola aurkeztu eta kuotaren diru-sarrera nola egin ere ezarri zen.

Bere aldetik, irailaren 4ko 393/2023 Foru Aginduak, 60-A, 60-T, 60-S, 620, 670, 671 eta 672 ereduak aurkezteko eraren zenbait alderdi aldatzen dituenak, eredua aurkezteko prozedura aldatu zuen.

Une honetan, egoki iritzi da 620 eredua aurkezteko modua eguneratzea zergapeko guztiek telematikoki aurkezteko aukera izan dezaten, baita arautzea ere nola egin aurkezpena Zerga Administrazioaren beraren laguntzaz baliatuta, harremanak bitarteko elektronikoen bidez izateko obligaziorik ez dagoen kasuetan.

Bestalde, egokitzat jo da, halaber, 620 ereduarekin batera eroslearen eta saltzailearen nortasun agiri nazionalen –NANaren– fotokopiak aurkeztu beharra ezabatzea, kontuan hartuta haien identifikazio zenbakiak 620 eredua betetzeko eskatzen diren datuen artean agertzen direla, eta informazio hori kontrastagarria dela bai ereduaren aurkezpenean exijitzen den gaineratko dokumentazioarekin eta Administrazio honek dituen beste informazio iturri batzuekin.

Horrenbestez, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea 86/2023 Foru Agindua, otsailaren 17koa, garraiobide erabiliak eskualdatzeagatik ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga autolikidatzeko erabili beharreko 620 eredua onetsi eta hura nola aurkeztu eta kuotaren diru-sarrera nola egin ezartzen duena.

Aldaketa hauek sartzen dira otsailaren 17ko 86/2023 Foru Aginduan, garraiobide erabiliak eskualdatzeagatik ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga autolikidatzeko erabili beharreko 620 eredua onetsi eta hura nola aurkeztu eta kuotaren diru-sarrera nola egin ezartzekoan:

Bat. 3. artikulua honela geratzen da idatzita:

«3. artikulua. 620 eredua aurkezteko eta diru-sarrera egiteko moduak.

1. 620 eredua aurkezteko, bitarteko hauetako bat erabili ahal izango da:

a) Bide telematikoa, Internet bidez, Zergabidea plataformatik abiatuta, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuz-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 257/2026, de 17 de junio, por la que se modifican determinados aspectos de la presentación del modelo 620, aprobado por la Orden Foral 86/2023, de 17 de febrero.

Por Orden Foral 86/2023, de 17 de febrero, se aprobó el modelo 620 de autoliquidación del impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados por la transmisión de medios de transporte usados, así como las formas de presentación e ingreso de la cuota resultante.

La Orden Foral 393/2023, de 4 de septiembre, por la que se modifican determinados aspectos de la presentación de los modelos 60-A; 60-T, 60-S, 620, 670, 671 y 672, por su parte, modificó el procedimiento de presentación del modelo.

En este momento, resulta de interés actualizar la forma de presentación del modelo 620, abriéndose la posibilidad de su presentación telemática a todos los obligados tributarios y, en aquellos casos en los que no exista la obligación de relacionarse por medios electrónicos, regular su presentación mediante la asistencia de la propia Administración tributaria.

Por otra parte, resulta también de interés suprimir la obligación de acompañar al modelo 620 de la fotocopia de los documentos nacionales de identidad, DNI, de comprador y vendedor, al constar sus números de identificación entre los datos exigidos en la cumplimentación del modelo 620 y poderse contrastar esta información con el resto de documentación obligatoria exigida en la presentación del modelo, así como con otras fuentes de información con las que cuenta esta Administración.

En su virtud

DISPONGO

Artículo único. Modificación de la Orden Foral 86/2023, de 17 de febrero, por la que se aprueba el modelo 620 de autoliquidación del impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados por la transmisión de medios de transporte usados, así como las formas de presentación e ingreso de la cuota resultante.

Se introducen las siguientes modificaciones en la Orden Foral 86/2023, de 17 de febrero, por la que se aprueba el modelo 620 de autoliquidación del impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados por la transmisión de medios de transporte usados, así como las formas de presentación e ingreso de la cuota resultante:

Uno. El artículo 3 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 3. Formas de presentación e ingreso del modelo 620.

1. El modelo 620 podrá presentarse por alguna de las siguientes formas:

a) Presentación por vía telemática, a través de Internet, desde la plataforma «Zergabidea», con arreglo a lo previsto en la Or-

EK\CV GAO-I-2026-04194

koako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, ezarritakoaren arabera. Plataforma horrek aukera emango du, baita ere, aurkeztu beharreko autolikidazioen zirriborroak prestatu eta gordetzeko.

«Zergabidea» plataforma https://zergabidea.gipuzkoa.eus. Bertan sartzeko, beste bi bide hauek ere erabili daitezke: Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/) eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofiziala (https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna).

b) Zerga Administrazioaren laguntza, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 4. artikuluaren 2. apartatuan xedatutakoarekin bat.

Ondorio horietarako, zerga bulegoetara joaten direnean zergadunek foru agindu honen 5. artikuluan aipatzen den dokumentazioa eraman beharko dute, eta bertan funtzionario baten laguntza izango dute 620 eredua aurkezteko.

2. Autolikidazioaren emaitza ordaintzekoa denean, autolikidazioa ez da joko aurkeztutzat diru-sarrera bitarteko elektronikoen bidez egin arte, ordainketa-pasabidea erabilita, abenduaren 11ko 1074/2008 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera (1074/2008 Foru Agindua, abenduaren 11koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzenbide publikoko diru-sarrerak ordainketa-pasabidearen bidez ordaintzea arautzen duena).

3. 620 eredua aurkezteko era edozein dela ere, aplikatzekoa izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 38. artikuluan xedatutakoa.»

Bi. 5. artikulua honela geratzen da idatzita:

«5. artikulua. 620 ereduarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Zergadunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Zerga Administrazioan:

— Ibilgailuaren salerosketa kontratuaren jatorrizkoa eta kopia.

— Ibilgailuaren zirkulazio baimenaren fotokopia.

— Ibilgailuaren ezaugarriak jasotzen dituen ziurtagiriaren fotokopia.»

Azken xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2026ko ekainaren 17a.—Miren Itziar Agirre Berriotxoa, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (4194)

den Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos. Dicha plataforma permitirá también confeccionar y guardar los borradores de las autoliquidaciones a presentar.

La plataforma «Zergabidea» se encuentra disponible en el portal https://zergabidea.gipuzkoa.eus. También se puede acceder a la misma a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/, y de la página web oficial del Departamento de Hacienda y Finanzas, https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ogasuna.

b) Presentación mediante la asistencia de la Administración tributaria, de conformidad con lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 4 del Reglamento de gestión tributaria y de desarrollo de las normas comunes sobre actuaciones y procedimientos tributarios del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 5/2020, de 21 de abril.

A tales efectos, los contribuyentes accederán a las oficinas tributarias con la documentación a la que hace referencia el artículo 5 de esta orden foral y serán asistidos por un funcionario para la presentación del modelo 620.

2. Cuando de la autoliquidación resulte cuota tributaria a ingresar, la autoliquidación no se considerará presentada hasta que no se realice su ingreso por medios electrónicos a través de la pasarela de pagos, de conformidad con lo dispuesto en la Orden Foral 1074/2008, de 11 de diciembre, por la que se regula el pago de ingresos de derecho público de la Diputación Foral de Gipuzkoa por medio de la pasarela de pagos.

3. Cualquiera que sea la forma de presentación del modelo 620, será de aplicación lo dispuesto en el artículo 38 del Reglamento de gestión tributaria y de desarrollo de las normas comunes sobre actuaciones y procedimientos tributarios del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 5/2020, de 21 de abril.»

Dos. El artículo 5 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 5. Documentos a acompañar al modelo 620.

Los y las contribuyentes deberán presentar ante la Administración tributaria los siguientes documentos:

— Original y copia del contrato de compraventa del vehículo.

— Fotocopia del permiso de circulación del vehículo.

— Fotocopia del certificado de características del vehículo.»

Disposición final.

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 17 de junio de 2026.—La diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Miren Itziar Agirre Berriotxoa. (4194)

EK\CV GAO-I-2026-04194